3. zbk. • 2020ko apirila

# KA KLASEKO AHOTSA

Irakaskuntzako aldizkaria

# LOMLOE, ESKOLA-BIRUSA


| | | |
|---|---|---|
| EAE Publikako Irakasleak | Hezkuntza bereziko hezitzaileak | Haurreskolak Partzuergoa |
| Euskal Eskola Publikoaz Harro! | Adinagatiko arreta zuzenaren murrizketa | Eredu gerentzialak etorkizun mugatua |
| Irakaskuntza Pribatuak | Nafarroa Publikako Irakasleak | UPV/EHU |
| Hitzarmen berria lortzeko bidean | 0-3 zikloaren iraultza | Unibertsitate ministroaren bisita EHUn |

KA
KLASEKO AHOTSA




03
EDITORIALA

04
EAE PUBLIKAKO IRAKASLEAK
04 Euskal eskola publikoaz harro! Plataforma _ Bilboko euskal eskola publikoaren Aldeko Plataforma
05 Egonkortasuna
06 Zer da Hezkuntza Kalitatea?

08
HEZKUNTZA BEREZIKO HEZITZAILEAK
08 Adinagatiko arreta zuzenaren murrizketa _ Esleipen telematikoa finko, LEP arteko eta mugagabe ez-finkoentzat

09
HAURRESKOLAK PARTZUERGOA
09 Haurreskolak Partzuergoaren eredu gerentzialak gure etorkizuna mugatzen du
10 Haurreskolak Partzuergoko lan esperientziak hezkuntza laguntzako espezialisten zerrendetan puntuatzea
11 **STEILAS** Eusko Legebiltzarrean: Zer gertatzen da 0-3 zikloan?

12
IRAKASKUNTZA PRIBATUAK
12 Mediku-azterketak ikastetxe pribatuetan _ Gutxieneko soldata 950 eurora igo da 2020an
13 Justifikatutako gaixoaldi-bajagatiko kaleratzeak bukatu dira _ Medidas concretas contra la segregación escolar
14 Hitzarmen berria lortzeko bidean

15
UPV/EHU
15 Garbitzaileak borrokan!
16 Castells Unibertsitate-ministroaren bisita EHUn

17
NAFARROA PUBLIKAKO IRAKASLEAK
17 0-3 zikloaren iraultza

18
LGTBIQ+
18 Hezkuntza publikoaren indarra eta babesa askatasunen defentsan

19
IDAZKARITZA FEMINISTA
19 Martxoak 8
20 Hezkidetza eta berdintasunaren aldeko lanari aitortza
22 Pandemiaren argipean bizitza eta zaintzen krisia nabarmentzen da

23
LAN OSASUNA
23 Aski da! Osasun arrisku gehiagorik ez!

24
JENDARTE MUGIMENDUAK
24 CAF, jaitsi zaitez apartheidaren tranbiatik _ Inor ez etxerik gabe! _ Hendaia-Irun Blokeoa mugetan. Ukatutako eskubideak _ Bolintxuren alde eta Supersurraren luzapenaren aurka! _ Zaldibarko zabortegia
25 Mugak Zabalduz Karabana Balkanetara / Caravana Abriendo Fronteras a los Balcanes
26 Eilastasuna proiektu berriak abian!

27
HITZ ETA LAPITZ


Lege gordailua Bi-2729/00

# LOMLOE, eskolabirusa

Bizi garen mundu globalizatu honetan badira Koronabirusa bezain modu eraginkor eta azkarrean zabaltzen diren beste birus asko. Horietako batzuk gure ikastetxeetako geletan sartzen saiatzen dira, eta askotan langileek aurre egiten dioten arren, pandemia itxura duten hezkuntza birusak sartuta ditugu gure hezkuntza sistemetan. Neurri zorrotzak eta konpromiso irmoak ezinbestekoak dira kutsatze hori eteteko. Herri administrazioek merkatu jokoa saihesteko eta aukera berdintasuna bermatzeko gutxieneko batzuk arautu beharko lituzkete, eta horien baitan, ikastetxe bakoitzak hezkuntza proiektua garatu, auzo/herriko ikasleei hezkuntza eskubidea bermatuz. Agertoki horretan eskola publikoa izango litzateke administrazioak duen hezkuntza eskubidea bermatzeko aukera bakarra.

2013an LOMCE legea onartu zen. Horrek 2006an onartutako LOE legearen moldaketak ekarri zituen. Hala ere, oinarri ideologiko berberen gainean eraiki ziren bata zein bestea: sare publiko eta pribatuaren arteko "elkarbizitza", PISA eta hezkuntzaren merkantilizazioa, sistemaren desarautzea eta erlijio katolikoaren betikotzea gure eskoletan. Birus horietatik jaiotzen dira ezartzen ari zaizkigun ebaluazio sistemak, eduki kurrikularrak, ikastetxeen antolakuntza ereduak, baita gizarte ereduak ere. Ondorioz, merkatuen beharrei erantzuten dieten eduki kurrikular androzentrikoak eta komunitatearen beharretatik urruntzen diren ebaluazio sistemak zabaltzen dira, kudeaketa-eredu gerentzial batez gain pribatizazio eta segregazio maila ikaragarria dakartenak. LOMLOE ez da birusik gogorrena, askok sintoma gutxi batzuk soilik izango dituzte. Baina pandemia zabaltzen laguntzen du, eta politika neoliberalen birusa gure ikasgeletan sartzen jarraitzen du.

Pandemia egoerak agerian utzi du zerbitzu publikoen garrantzia; ondo ulertu dugu ez dela berdina oinarrizko zerbitzu bat erakunde publiko batek bermatzea edo enpresa pribatu baten esku uztea. Azken hamarkadan bizi izan dugun krisi sozio-ekonomikoaren aurrean ere ikastetxe publikoek modu batean erantzun dute, eta ikastetxe pribatuek, oro har, beste batean. Badirudi Koronabirusak heldu behar izan duela askok zerbitzu publiko eta enpresa pribatu baten arteko aldea uler dezaten.

**STEILAS**ek euskal eskola publiko bakarraren aldeko bidea eraikitzeko lanetan proposamenak luzatzen eta elkarlana lehenesten jarraituko du. Norabide horretan, Gasteizko Hezkuntza Publikoaren Aldeko Plataformak sustatutako "Publikoaz Harro" kanpainak komunitateak indartzeko balio izan du, baita konplexuak gainetik kendu eta eskola publiko bakarraren aldarrikapena egiteko ere. Bide batez, ea eskolabirusa gure hezkuntzatik kanporatzea lortzen dugun.

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAZ HARRO!

4 urte pasatxo dira Euskal Eskola Publikoaren aldeko Gasteizko plataforma lanean hasi zenetik, sekulako zalaparta sortu zuen Gasteizko Eskola Publikoak bizi duen eskola segregazioaren eta hezkuntza sareen arteko desorekaren salaketak. **STEILAS** hasieratik egon da plataformari babesa ematen, eta poztasunez eta itxaropenez bizi izan dugu azken urteotan gero eta indartsuago eta gorpuztuago dagoen hezkuntza publikoaren aldeko dinamika. Gasteizko plataformaz gain lekuan leku hainbat plataforma sortu dira eskola publikoaren inguruko arazo-oztopo-borroka ezberdinen inguruan: Bilboko, Santurtziko eta Oiongo plataformak, baita esaterako Ordizian, Astigarragan, Zarautzen nahiz Oarsoaldean piztutako borrokak eta aldarriak ere. Poliki-poliki bada ere, Hezkuntza sistemak bizi duen merkantilizazioa jomugan jartzea lortu dugu guztion artean, izan ere Gasteiz eta Iruñeko gobernuek azken hamarkadetan hezkuntzan egin duten kudeaketa pribatizatzaile eta desarautzailearen ondorioz, eta gauzatutako murrizketekin batera, eskola publikoa kaltetu eta estigmatizatu besterik ez dute egin.

Horregatik guztiagatik abendutik hona martxan egon den "Euskal Eskola Publikoaz harro!" kanpaina oso positibotzat jotzen dugu, batetik eskola publikoaren inguruan gabiltzan eragile ezberdinen arteko elkarlana eta saretzea ahalbidetu duelako eta bestetik horren garrantzitsua den Eskola Publikoaren inguruko eta hezkuntza pribatizatzearen kontrako eztabaida ikastetxe, haurreskola eta laguntza zentro ugariren hezkuntza komunitateetara zabaldu delako. 150 ikastetxe inguruk eman diote atxikimendua Publikoaz Harro manifestuari eta hori balioan jartzea ezinbestekoa da. Klaseko Ahotsetik berriro ere **STEILAS**KIDE guztiak animatu nahi zaituztegu "Euskal Eskola Publikoaz Harro!" ekimenarekin bat egin dezazuen eta zuen hezkuntza zentrotik bultzatu dezazuen.

**Mobilizazioei adi eta parte hartu!**

**EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAZ HARRO!**
kamisetak **STEILAS**eko egoitzetan salgai.

beep

# Bilboko Euskal Eskola Publikoaren Aldeko Plataforma

Bilboko Euskal Eskola Publikoaren Aldeko Plataforma aurkezten da, **Udalari eta Eusko Jaurlaritzari** sare publikoa indartzen lagunduko duten neurri zehatzak abian jar ditzatela **exijitzeko.**

Duela 3 urte sortu zen euskal eskola publikoaren plataforma Bilbon, sindikatuek eta familien ordezkariek Eskolako **Udal Kontseiluari planto** egin ondoren, foroaren immobilismoa eta eraginkortasun eza zirela eta.

Hauek dira plataformaren helburuak:

- **Eskola publikoa Euskal Herriko hezkuntzaren ardatz egituratzaile gisa defendatzea**, eta, zehazkiago, Bilbon.
- **Eskola publikoa defendatzen dugu, hori baita Bilboko auzoetan gizarte-kohesioa** eta aukeraberdintasuna **lortzeko berme bakarra.**

Bi helburu horiek abiapuntu hartuta, eskola publikoak Bilbon gaur egun duen egoera salatzen dugu, **erakundeen inplikazio eta ekimen politiko faltaren ondorioz.**

Gure **manifestuan** jada argitaratu dugun bezala, honako hau eskatzen dugu:

1. **Azpiegiturak hobetzea** eta ikastetxe publikoen eraikuntza berria.
2. Eskoletan bertan **aisialdirako guneak irekitzea**: liburutegiak, ludotekak, patio estaliak...
3. Ikastetxe publikoetan **matrikulazio-plazak bermatzea.**
4. Hezkuntza publikoaren **eskaintza zabaltzea.**
5. Sare publikoan sartzea bermatzeko neurriak hartzea.
6. Guztiontzako **kalitatezko hezkuntza publikoa** bermatzea.

# Egonkortasuna

## Prozedura berria. Esleipenen kudeaketa egiteko beste modu bat




**Eusko Jaurlaritza** buru-belarri dago prozedura berri hau aurrera atera nahian, **gure eredu proposamena ez dena.**

**Aldi berean,** helarazi digun testu zirriborroa zalantzaz betea dago, argitu ez dizkigutenak edo argitu ezin izan dituztenak.

**Bai beraiek** planteatutako egonkortze sistema, baita beraien jarduteko modua ere salatzen dugu.

# Zer da Hezkuntza Kalitatea?

Batzuk lidergoa, lehiakortasuna, produktibitatea edo bikaintasunaz hitz egiten ari diren bitartean, besteok berdintasuna, hezkidetza, gizarte kohesioa edo hezkuntza inklusiboaz hitz egiten dugu. Batzuk ikasleen arteko segregazioaren eragile nagusiak diren bitartean, besteok gizarte-maila desberdinetako haur guztiak hartzen ditugu, haien jatorri, klase sozial eta kulturari erreparatu gabe, baita ere desgaitasun edo behar bereziak dituztenak. Batzuk hezkuntzarako eskubidea klase pribilegiatu batzuei bakarrik luzatzen dieten bitartean, besteok hezkuntzarako denon eskubidea aldarrikatzen/defendatzen dugu, aukera berdintasuna bermatuz.

Duela urtebete, gizartearen euskalduntzean eskola publikoak duen garrantzia nabarmentzen zuen txostena atera genuen. Txosten horretan, besteak beste, D ereduan ikasten duten ikasleen %63ak eskola publikoan egiten duela eta hizkuntza ereduak ikasleen arteko segregazioan duen eragina zalantzan jarri genuen.

Oraingoan beste txosten batekin gatoz non ikastetxe publiko eta pribatuko ikasleen selektibitateko notak alderatu eta aztertuko ditugun. Honako azterketak ondorioztatzen du eskola publikoko ikasleek fase orokorrean nota hobeak atera arren, ikastetxe pribatuko ikasleek, ikastetxetik dakarten "puztutako" notak direla medio, unibertsitatera sartzeko batezbesteko nota hobea ateratzen dutela. Iruzurra, tranpa, azpijokoa edo amarrua? Auskalo. Zilegi den guztia beti ez da bidezkoa.

Azken urteetako hautaprobetako ariketak aztertzen baditugu, ondorio mamitsuak atera ditzakegu. Gure azterketako informazioa EHUko web-orritik* atera dugu eta azken zortzi urteetako sarbide probak izan ditugu aztergai.

1.Irudia. Selektibitateko noten bilakaera

| | Publikoa | | | | Pribatua | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Urtea | Fase orokorra | Ikast. nota | Azken nota | Aldea | Fase orokorra | Ikast. nota | Azken nota | Aldea |
| 2012 | 6,40 | 7,47 | 7,04 | 1,07 | 6,37 | 7,50 | 7,05 | 1,13 |
| 2013 | 6,56 | 7,49 | 7,12 | 0,93 | 6,52 | 7,50 | 7,11 | 0,98 |
| 2014 | 6,61 | 7,48 | 7,13 | 0,87 | 6,50 | 7,63 | 7,18 | 1,13 |
| 2015 | 6,72 | 7,49 | 7,18 | 0,77 | 6,66 | 7,56 | 7,20 | 0,90 |
| 2016 | 6,67 | 7,54 | 7,19 | 0,87 | 6,65 | 7,63 | 7,24 | 0,98 |
| 2017 | 6,52 | 7,62 | 7,18 | 1,10 | 6,52 | 7,77 | 7,27 | 1,25 |
| 2018 | 6,72 | 7,59 | 7,24 | 0,87 | 6,71 | 7,76 | 7,34 | 1,05 |
| 2019 | 6,68 | 7,61 | 7,24 | 0,93 | 6,66 | 7,84 | 7,37 | 1,18 |
| Batazbeste | 6,61 | 7,54 | 7,17 | 0,93 | 6,57 | 7,65 | 7,22 | 1,08 |

* Iturria: https://www.ehu.eus/es/web/sarrera-acceso/sarbide-proben-estatistikak

**Fase orokorreko nota** lortzeko fase horretako 5 ikasgaietan ateratako noten batezbestekoa kalkulatzen da. Analisia egiterakoan, ohiko eta ez-ohiko deialdietako azterketak izan ditugu kontuan. 2. irudiko grafikoan, eskola publikoko notak pribatukoekin alderatzen baditugu, lehenengoak hobeak direla ondorioztatu dezakegu. 2017an pribatuko nahiz publikoko ikasleek nota bera atera zuten arren, gainontzeko urteetan ez da horrelakorik gertatzen, eta alde hori bereziki nabarmena izan zen 2014. urtean %11 puntukoa izatera iritsi baitzen.

2. Irudia. Fase orokorreko noten bilakaera (%40)




**Ikastetxetik dakartzaten** notak begiratuz gero, balantzak beste aldera egiten du. Hemen, 3. irudian ikusi daitekeen moduan, ikastetxe pribatuetako ikasleek publikokoei aurrea hartzen diete eta urtero, amaierako batezbesteko nota osatzeko daramaten ikastetxeko nota, eskola publikoko ikasleena baino handiagoa da.

3. Irudia. Ikastetxetik dakarten notaren bilakaera (%60)




Bi faseetako notak ponderatzeko moduak (fase orokorreko notak %40ko balio duela eta ikastetxekoak %60) eta pribatuko ikasleek dakarten nota bereziki altuak unibertsitatera sartzeko batezbesteko nota baldintzatzen dute. Horrela, urtero, ikastetxe pribatuko ikasleen unibertsitatean sartzeko batezbesteko nota, publikoko ikasleena baino altuagoa izaten da nahiz eta azkenek fase orokorreko nota hobea izan (4. irudia).

4. Irudia. Sarbide-probako azken noten bilakaera




5. irudian ikusi daiteke bai ikastetxe publikoko, eta bai pribatuko ikasleek ikastetxetik eramaten dituzten notak, fase orokorreko notak baino altuagoak direla, hau da, notak "puztu" egiten dituztela jatorrizko ikastetxeetan. Notak puzterako orduan, ikastetxe pribatutakoak eskuzabalagoak dira eta horren ondorioz, nahiz eta ikastetxe publikoko ikasleen fase orokorreko notak hobeak izan, pribatuko ikasleek unibertsitatera sartzeko nota hobea izango dute.

5. Irudia. Ikastetxeko eta fase orokorreko noten aldearen bilakaera




## Laburbilduz...

Gaur egun ikastetxe publiko eta pribatuko ikasleak berdintasunean parte hartzen duten proba bakarrean, selektibitateko fase orokorrean, publikoko ikasleek bataz beste nota hobeak ateratzen dituzte.

Eskola pribatuko ikasleek ikastetxetik dakarten nota, publikoko ikasleena baino handiagoa da, nahiz eta beraien ezagutza txikiagoa izan, aurreko puntuan azaltzen den bezala.

Ikastetxetik dakarten puztutako nota hori medio, unibertsitaterako sarbidea zehaztuko duen batezbesteko nota handiagoa dute eta publikoko ikasleekiko lehentasuna beraien ikasketak aukeratzerakoan.

# ADINAGATIKO ARRETA ZUZENAREN MURRIZKETA

Azkenengo aldizkari alean argitaratu bezala, gure sektoreko aldarrikapenetan, adinagatiko arreta zuzenaren murrizketa aipatzen genuen. Izan ere, 2003ko Lan Hitzarmeneko 51.artikuluan aipatzen den bezala, "60 urtetik gorako langileentzat ordu–murrizketak ezarriko dira...". Gai honek duen garrantziaz oharturik, eta nahiz eta bai idatziz eta bai ahoz zenbait bileretan Hezkuntza Sailari artikulu honen aplikazioa eskatu, Administrazioaren aldetik ez dugu inolako borondaterik ikusi gai honi heltzeko. Hori horrela, eta zerbitzu juridikoarekin kontsultatu ostean, PRECO baterako deialdia egin genion mahai parekideko kide guztiei (Administrazioko kideak, Lan Harremanetarako Kontseilua eta sindikatu guztiak bildu ginen).

Bilera horretan, Hezkuntza Sailak, gaiari ez zion heldu behar zen bezala, eta zegozkion ardurak ez zituen bere gain hartu. Modu horretan, beste sindikatu guztiek gure eskaerarekin bat egin zuten eta Hezkuntza Sailak aldiz ez.

Hurrengo bileretan, azken ahaleginak egin genituen gaia negoziatzen hasteko, baina oraingoan, ordea, ez genuen jaso sindikatu guztien babesa. Izan ere, langileen babes handia duen sindikatu batek premiarik gabeko gaia zela aipatuz, bilera baterako deialdia zehaztea gogor oztopatu zuen.

Egoera ikusita eta aipaturiko PRECOa behin gauzatuta, gai hau epaitegietara eramateko erabakia hartu eta gauzatu genuen. Hori horrela, hurrengo hilabeteetan epaiketa baterako hitzordua jasoko genuke. Beraz, orain epaile batek erabaki beharko du gure Lan Hitzarmeneko 51.artikuluaren aplikazioa gauzatuko den edo ez.

Esan beharra dago, Hezkuntza Sailak gai honi mahai negoziatzaile batean heltzeko borondatea edukiko balu, 60 urtetik gorako langileei aplika ziezaiokeela hurrengo ikasturtetik aurrera. Baina zoritxarrez, horrela kudeatzeko asmorik ez du izan.

# ESLEIPEN TELEMATIKOA FINKO, LEP ARTEKO ETA MUGAGABE EZ-FINKOENTZAT

Arestian jakinarazi genizuen bezala, Hezkuntza Sailak langile finko, LEP arteko kontratudun eta mugagabe ez-finkoentzat esleipen telematikoa martxan jarri nahi du. Printzipioz, Hezkuntza Laguntzako Espezialistentzat, Terapeuta Okupazionalentzat eta Fisioterapeutentzat prozedurari forma emango dion behin betiko araudiaren ebazpena atera ez bada ere, dagoeneko puntu batzuk zehaztu ditu Hezkuntza Sailak.

Esleipenak fase batzuk izango ditu eta fase hauek "kaskadan" joango dira, hau da, lehenengo fase bat bukatzean, hurrengoa hasiko da. Horrek esan nahi du prozesuak bi aste inguru iraun dezakeela.

### 1. Fasea.
### Pertsonal Finkoa

# Ikastetxean egonkortu nahi duten langileak.

# Beharrik gabe gelditu diren langileak ("suprimituak").

# Borondatez ikastetxez aldatu nahi duten langileak.

# Berritzegunera heldu berriak (lekualdatze lehiaketa).

### 2. Fasea.
### LEP artekoak eta mugagabe ez-finkoak

# Ikastetxean egonkortu nahi duten langileak.

# Beharrik gabe gelditu diren langileak ("suprimituak").

# Borondatez ikastetxez aldatu nahi duten langileak.

# Haurreskolak Partzuergoaren eredu gerentzialak >>>>>>>>> gure etorkizuna mugatzen du

Haurreskolak Partzuergoa 2003an sortu zenetik izan dugun gerentea, Maite Larrañaga, urtarrilaren 17an jubilatu zen. Erretiroa ate joka genuela, 2019ko abenduaren 5ean, **STEILAS** sindikatuak eskaera zuzena egin zien prentsaurreko bitartez Eusko Jaurlaritzari eta Hezkuntza Sailari: Haurreskolak Partzuergoa Hezkuntza Sailean guztiz integratzea eta honen kudeaketa zuzena bere gain hartzea, orain arteko kudeaketa eredua gainditzeko.

Orain arteko eredu gerientzialari jarraipena emanez, ordea, gerente berriaren izendapena egun batetik bestera ezagutu genuen: Zorione Etxezarraga izango da Haurreskolak Partzuergoko gerente berria. EAJ-PNV alderdiko kidea eta Astigarragako alkate ohia.

Izendapen berriak erabateko paralizazioa ekarri du enpresara. Izan ere, izendapena ezagutu genuenetik itxoiten eman ditugu ia 2 hilabete lehen Mahai Negoziatzailerako deialdia jaso arte. Gure harridurarako, gai bakarra tratatzeko deialdia jaso berri genuen: soldata igoeraren onespena.

Haurreskolak Partzuergoak mahai gainean duen egoera izanda, hainbat eta hainbat gai lantzeke daudela, zeren zain dago negoziazioari ekiteko? Eusko Jaurlaritza bera bezala, funtzioetan al dago gerente berria?

Haurreskolak Partzuergoak mahai gainean duen egoera izanda, hainbat eta hainbat gai lantzeke daudela, zeren zain dago negoziazioari ekiteko? Eusko Jaurlaritza bera bezala, funtzioetan al dago gerente berria?

Bi ikasturtez kudeaketa langileen lan baldintzak arautzen, lantzen eta negoziatzen pasa ditugun arren (ordezkapen araudia, ordezkapen kasuistikak, barne sustapena eta lanpostuen monografiak), oraindik ez da ezer itxi. Eusko Jaurlaritzak trabak besterik ez ditu jarri prozesu amaieran dokumentuak itxi eta negoziazioan aurrera jarraitzeko. Zoritxarrez, egindako lan guztia azken momentuan goitik behera baldintzatu du.

Era berean, ikasturte honetan gehiago atzeratu gabe gai hauek ere landu behar ditugu ezinbestean, gauden immobilismo instituzionalari aurre egiteko:

> Pertsonal kudeaketako langileen kontsolidazio LEPa.

> Hezitzaileen LEParen deialdia.

> Borondatezko eszedentzia lanpostuaren erreserbarekin.

> Ikasketengatiko eszedentzia.

> Lanpostu zerrenda eguneratzea.

> Koordinazio lanetarako dedikazio orduak berrikustea.

> Lan hitzarmena osotasunean negoziatzea.

> Prest Gara eta Irale ikastaroetan parte hartzea erraztea eta bultzatzea.

> Zahartze plana diseinatzea.

> LAL deialdia.

> Zerrenden kudeaketaren informazioa.

Haurreskolak Partzuergoak berak, langileok, haurrek eta familiek merezi dugun bezala aurrera jarraitu ahal izateko izugarrizko lan pila dugu mahai gainean. Enpresari eta Eusko Jaurlaritzari beste alde batera gehiago ez begiratzea eskatu nahi diegu hitz hauen bitartez, beste behin. Dagozkien ardurak hartzeko garaia da, funtzioetan egoteari uzteko, aurrerapausoak ematen hasteko eta negoziazioari behar duen tokia emateko.

Haurreskolak Partzuergo indartsu, publiko, doako eta unibertsal baten alde lan egiten jarraitu behar dugu, bestelako interes politiko, eta enpresarien gainetik.

## >> Eredu gerentziala gainditu eta Hezkuntza Sailean integratu gaitezen behingoz! <<

# Haurreskolak Partzuergoko lan esperientzia hezkuntza laguntzako espezialisten zerrendetan puntuatzea

2018-2019 ikasturtean **STEILAS** sindikatuaren aldarrikapen nagusienetako bat gauzatu zen eta, lehen aldiz, Haurreskolak Partzuergoko lan esperientziak maisu-maistren kidegoan puntuatu zuen. Ordura arte Haur Hezkuntzako 2. zikloan egindako lana zenbatzen zen Haurreskolak Partzuergoko zerrendan. Beraz, desoreka horren aurrean, batean zein bestean egindako lanak zerrenda guztietan puntuatzea ezinbestekotzat jotzen genuen, beharrezko titulazioa izanda.

lan esperientzia

Borroka hau irabazita, beste honekin jarraitu dugu aurten:

**Hezkuntza Laguntzako Espezialisten zerrendetan Haurreskolak Partzuergoko esperientzia zenbatzea, eta alderantziz.**

Izan ere, Haur Hezkuntzako Goi Mailako Heziketa Zikloarekin Haurreskolak Partzuergoan eta Hezkuntza Laguntzako Espezialisten zerrendetan egin genezake lan. Hori kontuan izanda, bi sektoreen lan esperientziak zerrenda batean zein bestean puntuatzea garrantzitsua dela uste dugu, langileon esperientzia aberasten eta osatzen baitu.

Ondorioz, **STEILAS** sindikatuak eskaera zuzena luzatu du aurten inplikatutako mahai sektorial bakoitzean (Haurreskolak Partzuergoko Mahai Negoziatzailean eta irakasle eta hezitzaile laboralen Mahai Negoziatzailean) Hezkuntza Sailari: Haurreskolak Partzuergoko lan esperientzia Hezkuntza Laguntzako Espezialisten zerrendetan puntuatzea, eta alderantziz, beharrezko titulazioa izanda.

Tamalez, gure eskaera ez dute kontuan izan aurten. **STEILAS** sindikatuak bere aldarrikapenekin tinko borrokan jarraitzeko asmoa du, eta ez du etsiko aldarrikapen hau lortu eta gauzatu arte.

zerrendetan puntuatu

**STEILAS** Eusko Legebiltzarrean:

# Zer gertatzen da 0-3 zikloan?

Haurreskolak publikoak doakoak unibertsalak

Otsailaren 5ean **STEILAS** sindikatuko ordezkariek Eusko Legebiltzarrean 0-3 zikloaren eta Haurreskolak Partzuergoaren inguruko hausnarketa eta gure iritzia partekatzeko aukera izan genuen alderdi politiko guztien aurrean.

Berebiziko garrantzia duen agerraldia izan zen. Izan ere, mahai gainean jarri ahal izan genuen Euskal Hezkuntza Sisteman 0-3 zikloarekin gertatzen ari dena eta horretan Haurreskolak Partzuergoak jokatzen duen papera.

Hauek dira agerraldi horretan planteatu genituen ideiak:

1. Borondate politikoa da etapa hau doakoa izatea, pribatizazio lotsagabea ematen baita ziklo honetan.

2. Eskola ibilbidea bermatuta egon beharko litzateke 0 urtetatik hasita.

3. 0-3 zikloa iruzurrerako eta pribatizaziorako atea da.

4. Benetan sinesten dugu haurreskolak publikoak, doakoak eta unibertsalak izan behar direla.

5. Haurreskoletako matrikulazio kanpaina eskoletako matrikulaziorekin batera egin beharko litzateke.

6. Haurreskolak Partzuergoa Hezkuntza Publikoaren barruan egon behar da eta Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa zuzena izan behar du. Eredu gerentziala gainditu behar da.

7. Save the Children erakundearen "Donde todo empieza" txostenak garbi uzten du desberdintasun sozialak gainditzeko ezinbesteko giltza dela Haurreskolen doakotasuna.

8. Haurreskolak Partzuergoa immobilismo egoera batean dago hezitzaile eta kudeaketa langileen egoera negoziatzeko orduan.

Agerraldi honen inguruan egin ditugun laburpenak sindikatuko web-gunean dituzue ikusgai.
https://steilas.eus/sektoreak/eae-haurreskolak

Era berean, bideoak osorik ikusi ahal izateko Eusko Legebiltzarreko web-guneko lotura ere bertan duzue ikusgai.

## Mediku-azterketak ikastetxe pribatuetan

Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 22. artikuluak dio enpresaburuak zaindu behar dituela harekin lan egiten duten pertsonen osasuna eta segurtasuna, eta bermatu behar diela haien osasunaren aldizkako zaintza egiteko aukera. Zaintza hori langileak baimena ematen duenean bakarrik egin ahal izango da.

Euskadiko eta Nafarroako irakaskuntza arautuko ikastetxe pribatuen kasuan, mediku-azterketa hori urtero eskaini behar zaie langile guztiei, eta borondatez joan ahal izango dira edo uko egin ahal izango diote. Lan-ordutegian egin behar da, eta ez da langileentzako gastua izango.

Osasun-azterketak enpresak kontratatutako mutualitateak edo prebentzio-zerbitzuak egiten ditu, eta, betiere, gaitasun teknikoa, prestakuntza eta gaitasun egiaztatua duten osasun-langileek.

Ohiko azterketa medikoak langileen osasun-egoerari buruzko galderek eta, oro har, azterketa fisiko batek osatzen dituzte. Gainera, beste proba batzuk ere egin ohi dira, hala nola ikusmenaren kontrola, audiometria bat (entzumen-azterketa), espirometria bat (langilearen arnasketa-funtzionaltasunaren azterketa), odol-analitika bat, gernuko beste bat, elektrokardiograma bat eta, hala badagokio, azterketa erradiologiko bat.

Beti errespetatuko dira langilearen intimitaterako eta duintasunerako eskubidea eta langilearen osasun-egoerarekin lotutako informazio guztiaren konfidentzialtasuna. Emaitzak langileari jakinarazten zaizkio. Langileen osasunaren zaintzari buruzko datuak ezin izango dira erabili bereizkeria egiteko, ezta langilearen kalterako ere. Langileak bere lanposturako gai izaten jarraitzen duen edo ez baino ez zaio jakinaraziko enpresaburuari.

Osasuna zaintzea pertsona guztien betebeharra da. Horregatik, neurri egokia da osasun-azterketak aldizka egitea, lanbidejardueran eraginik ez duen emaitzaren batek kaleratzea edo landiskriminazioa ekarriko duen beldurrik gabe. Diskriminazio horrek zehapenak ekar diezazkieke enpresari eta enplegatzaileari.

En el caso de los centros privados de enseñanza reglada de Euskadi y Navarra esta revisión médica debe ofrecerse anualmente a todo el personal, que voluntariamente podrá acudir o renunciar a ello. Debe realizarse en horario laboral y no puede suponer un gasto para los trabajadores y trabajadoras.

Se llevarán a cabo respetando siempre el derecho a la intimidad y a la dignidad de la persona trabajadora y la confidencialidad de toda la información relacionada con su estado de salud. Los resultados son comunicados a la persona afectada. Esa información no podrá ser usada con fines discriminatorios ni en perjuicio del trabajador o trabajadora. El titular de la empresa solo será informado de si la persona sigue siendo apta o no para su puesto de trabajo.

## Gutxieneko soldata 950 eurora igo da 2020an

Lanbideen arteko gutxieneko soldata aurten % 5,5 igotzea adostu zuten Espainiako Gobernuak, sindikatuek eta patronalak. Horrenbestez, gutxieneko soldata 900 eurotik 950 eurora igo da hilean.

Iaz, % 22,3ko igoera izan zuen gutxieneko soldatak, 735 eurotik 900 eurora, alegia.

Neurri horiek eragin zuzena izan dezakete arautu gabeko irakaskuntzako lanbide-kategoria batzuetan eta Estatuko Hitzarmena aplikatzen duten Haur Hezkuntzako lehen zikloko enpresetan. Horietan guztietan, gutxienez, soldata kopuru horietara egokitu behar dira lansariak.

**STEILAS**ek prekarietatearekin amaitu eta lan baldintzak duintzeko neurriak hartzeko beharra exijitzen die EAEko eta Nafarroako erakunde eta patronalei. Neurri horien artean lanaldia 35 ordura jaistea eta 1.200 euroko gutxieneko soldata ezartzea daude.

El salario mínimo para 2020 se establece en 950€ y supone la adecuación de los salarios en algunas categorías profesionales de la Enseñanza No Reglada y de las empresas de primer Ciclo de Educación Infantil.




Lanbideen arteko gutxieneko soldata

## Justifikatutako gaixoaldi-bajagatiko kaleratzeak bukatu dira

Joan den otsailaren 28an, Estatuko Gobernuak 52.d artikulu polemikoa indargabetu zuen Langileen Estatututik. Artikulu horrek, Konstituzio Auzitegiaren arabera, modu objektiboan kaleratzeko aukera ematen zien enpresei, aldizkako gaixoaldi-bajak metatzeagatik, justifikatuta egon arren.

Auzitegi Konstituzionalaren arabera, langile bat kaleratu zitekeen bi hilabete jarraian lanaldien % 20 falta bazen, betiere azken urteko lanaldien % 5 falta izan balitz. Kalkuluan, 20 egun baino gutxiagoko baja-absentziak pilatzen ziren, salbuespenak salbuespen, hala nola, tratamendu onkologikoak.

Langile batzuk beren lanpostuetara joaten ziren % 100ean beren gaitzetatik errekuperatuta egon gabe, lana legez galtzeko arriskua baitzuten.

**STEILAS**entzat premiazko kontua zen langileontzat hain krudela eta kaltegarria zen neurri bat indargabetzea. 2012ko lan-erreformak langileoi kendu zizkigun eskubideak berreskuratzeko bidea irekitzeko balio behar du.

Desde el pasado 28 de febrero quedó derogado el artículo 52.d que permitía a las empresas llevar a cabo despidos por acumulación de bajas médicas justificadas. Para **STEILAS** era una cuestión de absoluta urgencia derogar una medida tan lesiva para la clase trabajadora.

## Medidas concretas contra la segregación escolar

La ONG Save the children ha publicado en enero un informe que recoge el análisis de la situación de pobreza en los hogares con hijos e hijas en Euskadi. El estudio identifica y caracteriza los cinco perfiles más representativos de los hogares con niños y niñas a cargo.

Save the Children

Al final del documento aporta propuestas interesantes que pueden tener un impacto especial en alguno de los perfiles de familias más vulnerables que se identifican en el informe. En el apartado de medidas a aplicar en el sistema educativo de Euskadi propone que se debe incorporar medidas concretas contra la segregación escolar que garantice la equidad en el acceso a la educación del alumnado de Euskadi independientemente de su origen o condición, para evitar que las diferencias socioeconómicas se traduzcan en una desigualdad de oportunidades. Las medidas concretas que propone son:

- Establecer ratios mínimos y máximos de alumnado de estos perfiles socioeconómicos por centros en mismas zonas de escolarización y definir mecanismos de control que vayan dirigidos a vigilar y corregir aquellas situaciones que contribuyen a esta concentración.
- Planes de acción positiva en aquellos centros con mayor complejidad social.
- Eliminar criterios de acceso que fomenten la inequidad, tales como la condición de antiguo alumno de los progenitores o alguno de los hermanos, y criterios que queden a discreción de los centros.
- Establecer mecanismos de garantía de la gratuidad real de la educación, fijando máximos en las aportaciones que puedan realizar las familias para actividades complementarias tanto en centros públicos como concertados.
- Fortalecer las capacidades de la inspección educativa para controlar posibles prácticas de selección del alumnado por parte de algunas escuelas concertadas y tomar las medidas correctoras oportunas.
- Asegurar que las escuelas concertadas religiosas ofrecen alternativas a la asignatura de religión católica.

"Greba amaitzeko akordioa" sinatu zenetik 5 hilabete baino gehiago igaro diren arren, haren edukiak Lan Hitzarmen berrira eramatea falta da bai eta azken urteotan lortu diren lege-hobekuntzak txertatzea ere.

# HITZARMEN BERRIA LORTZEKO BIDEAN

Nahiz eta hitzarmen berria sinatu ez den edo sinatu arren eta dagokion aldizkari ofizialean argitaratu ez den, akordio horretan jasotako edukiak –urtarriletik aurrera bere ezarpenerako irizpideak abenduaren 13an sinatu zen eranskin bat hitzarmen berriaren negoziazio-mahaian– erabat indarrean daude. Horregatik, zentroren batean hitzartutakoa betetzen ari ez bada, langileak prozesu judizial bat has dezake, hura betetzea exijitzeko.

Hala, soldatei, kolektibo desberdinen lanaldiari eta lan-kargei, ordezkapenei, hezkuntza-laguntzako espezialistei eta Haur Hezkuntzako 1. zikloari dagozkien hobekuntzak eta , erretiro partzialari eta abarri buruzko xehetasunak aipatutako eranskinean jasota daude, eta, beraz, ezarritako irizpideen arabera aplikatu behar dira.

Zehazki, erretiro partzialari dagokionez, honako hau erabaki zen:

> "Salbuespen gisa, 1958ko apirilaren 30a baino lehen jaiotako langile guztiei, apirilaren 30a barne, erretiro partziala hartzeko legezko baldintzak betetzen badituzte, erretiro partziala hartuko dutela bermatuko zaie, GSDOk ezarritako baldintzetan, 2020ko martxoaren 1ean (edo apirilaren 1ean, lan-bizitza kotizatuak eragindako langileentzat). Horrez gain, ikastetxeak eta langileak akordio bat sinatuko dute, metatutako lanaldiaren amaiera-data edo lanaldiaren zenbaketa% 25ekoa izan dadin, 2019ko abenduaren 31n erretiro partziala hartu izan balu bezala. "Horren arabera, egoera horretan dagoenak eta erretiro partziala izapidetu ez zaionak adostutakoa betetzeko eskatu behar du, egokitzat jotzen duen moduan, baita prozedura judizial bat hasiz ere.

Horrekin batera, otsailean Hezkuntza Sailak, Patronal guztiek –KE, IZEA, Ikasgiltza eta Bizkaiko Elizbarrutiko Ikastetxeak– eta **STEILAS**, ELA, CCOO eta UGT sindikatuek "aurreikusten den jaitsiera demografikoaren aurrean, enplegua mantendu eta irakasle-plantillak zaharberritze aldera" akordioa sinatu genuen. Akordioa honek bere lanpostua galdu duten HH 2. zikloa, Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergo eta Lanbide Hezkitako irakasle behin betiko kontratudunen birkokapena du xede. Horretarako erretiro partzialari lotutako errelebo-kontratuaz baliatuko da.

Hala ere, oraindik Hezkuntza Sailak ez du argitaratu akordioa benetan aplikatzeko hartu beharreko neurriak jasotzen dituen agindua. Hori aitzakia izan da patronalentzat, lehen aipatutako erretiro partzialaren aplikazioa are gehiago atzeratzeko. Ez dugu ulertzen agindua argitaratzeko atzerapen horren arrazoia, horrela, beste behin, sailak egoera hori konpontzeko duen gaitasun falta erakutsi du.

Era berean, ikastetxeren batek soldata-araubidea ez aplikatzeko erabakia hartu nahi badu, gogorarazi behar dugu patronalen eta sindikatuen artean 2014ko urriaren 10ean sinatutako akordio transakzionalean adostutako baldintzak bete behar dituela. Bertan eskatzen da, besteak beste, gutxienez azken bi kontabilitate ekitaldietan ikuskatutako kontuak aurkeztu behar zaizkiela langileen legezko ordezkaritzari eta Batzorde Paritarioari.

**STEILAS**ek gogor egingo du lan datozen asteetan, negoziazio mahaian Gizarte Ekimeneko zentroen hitzarmen berri bat hitzartzea posible izan dadin, mobilizazioei esker greba amaitzeko akordioan lortutakoa islatuko duena. Gainera, datorren ikasturtean ikasgelak galduko dituzten langileak birkokatzeko prozesua abiaraztea bultzatuko dugu, eta, horretarako, oso beharrezkoa izango da langileen laguntza, batez ere, ordezkari sindikalena.

Las cuestiones referidas a los salarios, jornada y cargas de trabajo de los distintos colectivos, sustituciones, mejoras correspondientes a las especialistas de apoyo educativo y primer ciclo de educación Infantil, jubilación parcial... deben aplicarse según los criterios establecidos en el anexo firmado el 13 de diciembre.

# Garbitzaileak borrokan!

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko eta EHUko eraikinetan garbiketa zerbitzua eskaintzen duten kontratetako langileek, bost asteko greba hasi zuten martxoaren 2an. Greba honetarako deialdia egin duten sindikatuek (ELA, LAB, CCOO, ESK) azpikontratatutako garbitzaileak gure ikastegi eta zerbitzuetara lan- eta osasun-baldintza duinetan etor daitezen, enpresek negoziazioari berriro seriotasunez heltzea aldarrikatzen dute.

Azpikontratatutako langile horiek, EHUk eta Hezkuntza Sailak zuzenean kontratatutako langileek baino %13 gutxiago irabazten dute hilean, eta hori gutxi balitz, %40k, gainera, lanaldi partziala du eta ondorioz, soldata ere partziala du. Bestalde, lan-zamen inguruan ere kexu dira, jasanezinak baitira: zuzenean kontratatutako langileek 1240 metro karratu garbitzen dituzte gehienez egunero, azpikontratatutakoek, aldiz, 2.500-2.800 metro karratu. Lan-karga horien ondorioz, bada, ugari dira osasun arazoak dituzten langileak ere; karpoko kanalaren sindromea, epikonditisa, tendinitisa, antsietatea... pairatzen dute. Horregatik guztiagatik, langile horiek beraien soldatak Eusko Jaurlaritzako langileen soldatarekin parekatzea eta hitzarmeneko edukien negoziazioari berriz ekitea eskatzen dute.

Langile horiek UPV/EHUrekin lan-harreman zuzena izan ez arren, kontratazio baldintzak ezartzen dituena eta horiek betearazteko ardura duena Unibertsitatea dela ulertzea garrantzitsua da. Garbitzaileen aldarrikapen nagusienetako bat, laneko bajak ordezkatzea da adibidez. UPV/EHUk ezarritako baldintzen arabera, hori ez betetzeak arau-hauste larria suposatzen du eta ondorioz, enpresa azpikontratatuak ekintza horren ondorioa jasan beharko luke hilabeteko fakturan. Horrenbestez, **STEILAS**ek honako galderak plazaratu zituen martxoaren 5eko Gobernu Kontseiluan:

1. Azpikontratatutako enpresetakoren batek, baldintza hori urratu duen ba al daki UPV/EHUk?
2. Erantzuna baiezkoa den kasuan, arau-haustea burutu duen enpresa zigortua izan al da?
3. Kontratuaren klausula hau eta gainerakoak, betetzen direla ziurtatzeko, zein kontrol- eta jarraipen-mekanismo ditu UPV/EHUk?
4. Inoiz batzartu al da UPV/EHU garbiketa-zerbitzuko langileekin edota haien ordezkari sindikalekin?
5. "Estrategia eta Ekintza Plan Eragilea Euskadin Soldata-Arrakala murrizteko" deritzonean jasota dagoen moduan, aztertu al ditu UPV/EHUk gizonen eta emakumeen arteko ordainsari-berdintasunerako klausulak edota soldata-arrakalaren aurkako neurriak? Feminizatuta eta prekarizatuta dagoen sektorea da garbiketa; azpikontratei erreparatuz, adibidez, emakumeek betetzen dituzte kategoria txikiko lanpostuak (garbitzailea/peoia), eta altuagokoak (peoi espezialista/laguntzailea), aldiz, gizonek.

Gerenteak bajak kontratatzeko fitxaketa-sistema abian jarri dutela esanez erantzun zigun, eta jarraipena egingo dutela. Bestalde, soldata-arrakalaren inguruko neurriak hartzeko konpromisoa hartzen zutela ere esan zuten. Hala ere, ikusi egin beharko dugu esandakoa betetzen duten edo ez.

Testuinguru horretan, martxoaren 10ean, Eusko Jaurlaritzak %100eko gutxieneko lan-zerbitzuak ezarri zituen Koronabirusaren izurriteari aurre egiteko; langile guztiak lanaldi osoa egitera behartu zituen, alegia. Horrela, alde batetik, Lan Sailak greba egiteko eskubidea urratu du eta bestetik, enpresen gain jarri beharrean, langileen gain jarri du erantzukizuna Jaurlaritzak. **STEILAS**ek elkartasuna adierazten die greban dauden lankide guztiei, eta konponbide batera lehenbailehen iritsi gaitezen, gatazka honetan bitartekaria izateko eskatzen diogu EHUri. Justizia soziala dago jokoan! Gizarte justuagoa lortu nahi badugu, borroka hau, langileena ez ezik, gizartearena ere badelako!

# Castells Unibertsitate-ministroaren bisita EHUn

Otsailaren 14an Manuel Castells Espainiako Estatuko Unibertsitate Ministro berriaren bisita jaso genuen EHUn. Ministroak Estatuko Unibertsitate guztiak bisitatu nahi omen ditu, bertatik bertara ezagutzeko asmoz, antza, Unibertsitatean lan eta ikasten dugun guztion usteak eta kezkak. Erronda horretan, lehen geltokia gure Unibertsitatea izan da eta egun osoz, arlo ezberdinetako ordezkariekin bildu zen, baita sindikatuekin ere.

Ez da ohikoa halako jarrera administrazioko goi karguen aldetik eta halaxe adierazi genion Castellsi, eskertuz sindikatuoi eskaini zigun ordu eta erdiko bilera-tartea, baita bertan erakutsitako jarrera ireki eta arduratsua ere. Baina asmoak, jarrerak eta hitz politak alde batera utzita, Castellsekin egon eta gero, halako zalantza geratu zitzaigun han bildu ginenoi, alegia, erronda hori guztia ez ote den azkenean itxura-operazio huts batean geldituko. Ministroak berak jada han-hemenka aitortu izan du bere agintaldiaren abiapuntua ez dela egokiena izan, eta bileran bertan berretsi zuen, berriz ere, Unibertsitate eta Zientzia ardurak ministerio ezberdinen artean bereiztearen zentzugabekeria, aintzat hartzen badugu ikerkuntzaren garrantzia Unibertsitate publikoen antolamenduan eta eguneroko jardunean. Bagenekien, bada, Unibertsitatea ez zela Gobernu honetako lehentasun estrategikoa izango. Baina Castellesek bere unibertsitate politika izango denaren testuingurua eta lan ildoak marraztu zizkigunean are argiago geratu zitzaizkigun haren mugak. Ez, seguruenik, borondate, asmo edo sentsibilitate ezagatik; bai, ordea, tresna eta baliabide baliabide politiko eta ekonomiko nahikoen faltagatik.

Aipatu zigun, hartara, Unibertsitatean ere gastu soziala izango dela lehentasuna, alegia, ikasteko bekak handitzea eta matrikula-tasak mugatu edo jaistea. Baita Irakasle-Ikertzaile Pertsonalaren Estatutu bat egiteko asmoa duela ere, irakasle asoziatu faltsuen gehiegizko erabilerakin amaitzeko, eta kezkatuta zegoela bai irakasle-ikertzaile gazteen prekarietatearekin bai Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalaren interinitate maila altuarekin. Kezka agertu zigun, halaber, Unibertsitatearen gehiegizko burokratizazioarekin eta horretan Akreditazio agentzia eta prozedurek duten eraginarekin, baita iruzurra ematen duten Unibertsitate pribatuen gehiegizko ugaltzearekin ere. Eta azkenik adierazi zigun asmoa duela, elkarrizketa erronda amaitu eta gero, Unibertsitatearen Estatu-Orokorrak deitu Unibertsitate Lege Organikoa (LOU) eraldatzeko prozesua aktibatu eta gauzatzeko. Neurri horiek guztiak ordaintzeko eta aktibatzeko moduez, edota, oro har, Unibertsitate publikoaren finantzazioaz ere galdetuta, ez zigun, ordea, ezer argitu. Are gehiago, adierazi zigun datozen urteetarako europar testuingurua gastu publikoen murrizketarako presioa izango dela, eta edozein kasutan Unibertsitatearen finantzaketarena Autonomia Erkidegoei dagokien auzia dela, haiena dela ardura eta haiengan egin beharko genukeela presioa, bide batez, gizarte mobilizazioaren garrantzia ere aitortuz eta gogoraraziz.

Guk gure aldetik jakinarazi genion horixe izan dela, hain zuzen ere, urte askotako gure lan egiteko modua Unibertsitatean, eta halaxe izaten jarraituko duela hurrengo urteetan ere. Hemengo gehiengo sindikalak ez duela zerikusirik Estatukoarekin, eta hemen jorratutako lan eta borrokek ekarri dutela, besteak beste, bertako irakasle-ikertzaile laboralen irudiaren garapena, baita asoziatu faltsuen arazoa ere ia erabat murriztea, edota tasa akademikoen igoera neurri batean kontrolatzea. Ezarri asmo duen Irakasle-ikertzaile Estatutu berriak, hartara, harago joan beharko lukeela, ibilbide laboral eta funtzionarialaren erabateko parekatzeak ahalbidetuz eta interinitate tarteak murriztuz, AZP arloan bezala. Eta kontziente garela Eusko Jaurlaritzan eta Nafarroako Gobernuan dugula Unibertsitatearen finantzaketaren auzi nagusia eta horregatik, hain zuzen ere, dela garrantzitsua unibertsitateen autonomia eta garapen propioa errespetatu eta bultzatuko duen Espainiako Unibertsitate Lege bat.

Ez da makala ministroak aurrean daukan erronka. Baina mobilizazio soziala garrantzitsua izango den bezala, hari ere badagokio baliabide eta tresna egokiak aktibatzea. Hitz polit hutsekin ez baita politikarik egiten.

# 0-3 ZIKLOAREN IRAULTZA

**STEILAS** sindikatuak urteak daramatza borrokan Haur Hezkuntzako lehenengo zikloarean kudeaketa publikoaren eta komunaren alde, eskolak Nafarroako Gobernuarenak edo udalenak izan.

2011. urtean Nafarroako 0-3 Plataforma sortu zen eta **STEILAS** buru-belari ibili da urte guzti hauetan. Aurreko legealdian, lauko gobernuak gure aldarrikapenak akordio programatikoan jasotzen zituela ikusita, egoera alda zitekeela pentsatu genuen. Zoritxarrez, legealdia amaituta, akordioan adostutako guztia ez zela bete ikusten dugu, eta egindako hobekuntza gutxi batzuk nahikoak ez direla baieztatu dezakegu.

Ziklo honek jasaten duen tratu txar sistematikoaz nekatuta, joan den ikasturteko amaieran 0-3ko langileok antolatzen eta gure eskola eta lan baldintzetan ditugun zailtasunak eta arazoak gure artean partekatzen hasi ginen.

Duten garrantziagatik, bi ardatz nagusitan oinarritzen dira gure aldarrikapenak:

## Ratioen jeitsiera

Egun dauden erdira, Haurtzaroari Arretaren Sare Europarrak aholkatzen duen bezala, banakotasunari eta etaparen ezaugarriei erantzuna eman ahal izateko. Gaur egungo ratioek arriskutsu eta jasangaitza egiten dute eskolen bizikidetza.

0-1 urte: ratioak langile bakoitzeko 1etik 4ra, egun 8 dira.

1-2 urte: ratioak langile bakoitzeko 1etik 6ra, egun 12 dira.

2-3 urte: ratioak langile bakoitzeko 1etik 8ra, egun 16 dira.

## Soldaten igoera

Nafarroako haur eskola publikoen langileek lan baldintza oso ezberdinak dituzte.

Etapa hezitzaile honen langileen behar zein ezaugarriei dagokien berariazko lan hitzarmena: amatasun baimena, antolakuntzarako irakaskuntza zuzeneko orduak, ordezkapenak...

Soldata bera lan beragatik: gaur egun soldatak 900 eta 1.500 € tartekoak dira.

2012tik KPIren eguneratzea.

Urteko 14 paga.

Antzinatasunaren ordainketa.

> "El primer ciclo de la educación infantil, el ámbito más marginado del sistema educativo, una calle oscura desde el punto de vista político, no tiene recursos, y la labor profesional de sus trabajadoras carece de reconocimiento y de prestigio".
>
> Vicenç Arnaiz Sancho.

Baldintza minimo horiek betetzen ez diren bitartean, **STEILAS**ek kalera ateratzen jarraituko dugu Hezkuntza Departamentuak lehenengo etapa gizahezitzaile honi behar duen arreta eta garrantzia eman arte.

Tamalez, 2020ko aurrekontuek ez dituzte gure exigentziak kontuan hartzen. Berriro ere intentzio onak entzuten ditugu, baina egiturazko aldaketa egiteko ausardia politikoa falta da, eta nahikoak ez diren aldaketa txikiak besterik ez dira egiten.

0-6 urteko etapa hezitzailea borondatezkoa izan arren, doakotasuna bermatu behar da. Haurtzaroarekin konprometitua dagoen Gobernuak zerbitzu publiko guztiak finantziatzea lehentasunezko neurria izan beharko luke, horiek luxuzko artikuluak ez bilakatzeko.

# HEZKUNTZA PUBLIKOAREN INDARRA ETA BABESA ASKATASUNEN DEFENTSAN

*Ez genuen uste, orain dela gutxira arte, horrelako artikulurik idatzi beharko genukeenik. Baina, hara!*

Urte batzuk (larregi) atzera egiten ari garela iruditzen zaigu azkenaldian guregana ere iritsi diren diskurtso gaiztoekin. Gainditutako garaiak atzean utzi nahi ez eta, etorkizun hurbil eta ilunean kokatu nahi dituzte batzuk. Etorkizun bezain intentzio eta asmakizun ilunekin.

LGTBIQ+ kolektiboa osatzen dugunoi bereziki gogorra egiten zaigu guretzat ezinbestekoak diren eskubideak nola erasotzen dituzten ikustea, askatasun osoz. Argumentu pozoitsu horietan entzuten eta irakurtzen ditugun hitzak, zoritxarrez, ez ditu haizeak eramaten. Izan ere, hitzek ekintzak ekarri eta justifikatzen dituzte, zilegi bihurtzen dituzte. Eta gorrotoa zilegi egitea pauso atzeraezina ematea eta pertsonon eskubide oinarrizkoenak zuzen-zuzenean erasotzea suposatzen du.

Lotsaren maila gorenera heltzen dira askatasunen defentsaren aurka jarduten duten horiek "diktadura progresista" kontzeptua darabiltenean beraien zikin guztia ahalik eta bazter gehienetan zabaltzeko. Progresista hitza irain bezala inoiz inor erabiltzera iritsi zitekeenik ere... Zein eskema mental maltzurren baitan lotu daitezke "diktadura" eta "progresista" hitzak elkarrekin?

Hori guztia gutxi ez eta, gainera, haien adierazpen askatasunaren erabileran kokatzen dituzte hitz horiek. Ozen gogoratu behar diegu LGTBIQfobia (arrazismoa, xenofobia zein matxismoa bezala) ez dela inoren adierazpen askatasunean oinarritzen, baizik eta gorroto delitua dela. Akaso, gorrotorako askatasuna da haiek nahiko izan nahi nahiko luketeena.

Era berean, komunikabideen paperaren inguruan hausnarketa txiki bat egitea nahiko genuke. Badakigu azken urteetan informazioa jasotzeko moduak izugarri aldatu direla eta *fake news*-en garaian bizi garela, baina arduragabekeria hutsa da norberaren eta kolektiboaren aurkako eskubideen kontra egiten duten diskurtsoei lekua ematea, bozgorailua besterik ez dira izan eta izan zezaketen oihartzun mugatua biderkatu besterik ez dute egin.

Bukatzeko, Hezkuntza Publikoaren aurkako eraso zitalen aurrean Hezkuntza Publikoak berak duen berebiziko indarra eta ardura azpimarratu behar dugu, beti bezala. Inoiz baino gehiago nabarmendu behar dugu Hezkuntzak eta bertan lanean dihardugunok jokatzen dugun papera norbanakoen eta kolektiboen askatasunen defentsan. Hezkuntzak babeslekua behar du izan, pertsona eta kolektibo bezala askatasunean hazi eta heziko garen esparrua. Hezkuntzak ezin du gorrotorik onartu, borrokatu egin behar du.

FEMINISMOAN
HEZI,
BORROKARI
EUTSI!
martxoak 8
EMAKUMEEN
nazioarteko EGUNA
idazkaritza feminista
stellas

AHA
SOLAS
CALLE
SOMOS
EL GATO

ASTEARTEKO

ANTOLATU INDARRAK,
BATU BORROKA FEMINISTARA

# Hezkidetza eta berdintasunaren aldeko lanari aitortza

Hurrengo lerroetan Hezkidetzaren eta berdintasunaren alde lanean aritu diren irakasle eta hezitzaile guztien aitortza xumea egin nahi dugu. Hasiera batean, kontzientzia feminista zuten irakasleak haien kabuz hasi ziren gai horren inguruan lanean, bai ekintza isolatuak egiten, bai efemerideen inguruko lanketa egiten... Kasu askotan jarduera horien inguruko justifikazio gehiegi eman behar izaten zuten, eta zoritxarrez batzuetan oraindik ere berdintasuna ikastetxeetako ekintzetan eta kurrikulumean txertatzeko arrazoitzen jarraitu behar izaten da. Hona hemen bide horretan adibidetzat eman nahi ditugun hainbat esperientzia.

## Gainzuri eskola

**(Urretxu-Zumarraga, HH eta LH)**

Herriko kaleen izenak berrizendatu zituzten emakumeen izenekin martxoaren 8an eta hori aprobetxatuz haien bizitzaren lanketa egin zuten. Ekintza horrekin herrian ikusgarri egitea lortu zuten ikastetxean egindako lana eta egunerokoan herriaren antolaketari dagokionez izendapenei buruz hausnartzeko parada izan zuten.

## Arana haurreskola (Gasteiz)

Gasteizko Haurreskola honetan, hiru lan lerro dituzte hezkidetzaren inguruan, hasteko **hezitzaileen** formazioa dago, artikulu, liburu, aldizkari... bitartez egiten dutena. **Familiei** zuzenduta hezkidetza txokoa sortu dute, hainbat informazio nahiz artikulu dituzte bertan. Eta amaitzeko **Haurrekin** duten harremana gehiago zaintzen dute, estereotipoak alde batera uzten saiatzen dira. Hitz egiteko era eta tonua kontuan hartzen dute eta eskaintzen dizkieten liburuak, materialak, ipuinak, irudiak... hezkidetzaren ikuspuntua kontuan hartuta hautatzen dituzte.

## Hezitzaile eskola

(Lanbide Heziketako ikastetxe bateratua, Iruñea)

Eskola honetan hezkidetza eta feminismoarekin sentsibilizazioa nabaria da historikoki duten ibilbideagatik eta eskaintzen den formazioagatik. **STEILAS**ek ikasturtero publikatzen dituen materialak praktikara eraman izan dituzte eta urtero **STEILAS** gonbidatzen dute garapen sozioafektiboko irakasgaira material horien aurkezpena eta hausnarketarako dinamikak egitera.

2017an SKOLAE Hezkidetza Plan Pilotoaren parte bilakatu zen eskola. Modu horretan kontzientziazio bidea artikulatu zen eta eskolako proiektu guztiek genero ikuspuntua dute harrezkero. Ikastetxeetan ematen diren formazio modulu guztien programek genero ikuspegia dutenez, ikasgai guztiek zeharka ikuspegi hezkidetzailea dute. Modulu guztietako programazio orokorretik hasita ekintza zehatzetaraino, ikas eskaintza guztietan.

## Artaben eguneroko irratsaio feminista

(Bilbo, DBH)

Artabe eskolan irratsaio feminista bat emititzen da goizero. 8:30ean DBHko ikasleek egiten dute eta atal ezberdinak ditu. Honela banatzen dute saioa:

1. Melodia.
2. Eskolaren inguruko berria.
3. "Efemoreak" (egun horri dagokion emakume bati buruz hitz egiten dute).
4. Indarkeriaren kontrako berria.
5. Emakumeak eta zientzia edo ekologia.
6. Emakumea eta Kirola.
7. Gela egonkorreko berria.
8. Menua.

Irratsaioa online entzuteko aukera badago nahi izanez gero lotura honetan:

https://sites.google.com/artabe.eus/artabe-irratia/p%C3%A1gina-principal

# Pandemiaren argipean bizitza eta zaintzen krisia nabarmentzen da

Aspaldi gabiltza feministok esaten bizitzak erdigunean jarri behar direla, askorentzat mantra gisa hainbatek errepikatzen duten esaldi honek ez du esanahirik, gure gain hartzen ditugun lan eta ardura asko ikusezinak baitira askorentzat. Baina salbuespeneko egoerak eztanda egin digu aurpegian, bizitzaren zaintzaren krisia eta honen gizarteratzearen beharra mahai gainean jarriz. 2008an burtsak eztanda egin zuenean bizitzarekin ordaindu genituen bankuek ezarri zizkiguten interesak. Murrizketen bidez, guztion biziraupena ziurtatzen duten ongizate gizartea prekarizatu genuen, dagoeneko ahulak ziren zerbitzu publikoak are eta gehiago prekarizatuz.

Argi gelditu da pandemia honi aurre egiteko zerbitzu publiko indartsuak behar ditugula ezinbestean, denentzat izango diren zerbitzuak, covid-19ak, itunpeko zerbitzuak ez bezala, ez baitu pertsonen arteko bereizketarik egiten. Oraingoan birus txiki batek erakusten digu aspaldi ikasi beharrekoa, indibidualismoak ez gaituela salbatuko, sareak behar ditugula bizirauteko, azken finean denak interdependenteak garelako. Baina behin eta berriro errepikatu badugu ere, azterketa iritsi da eta etxeko lanak egin gabe ditugu. Kaltetuak ez dira etxeko lanak egin ez dituztenak, baizik eta katearen amaieran kokatzen diren horiek; bazterketa sozialaren egoeran daudenak -kalean lo egiten dutenak, etorkinak, sarerik ez dutenak-, langabezian gelditu eta geldituko direnak, dagoeneko prekarioak zirenak, etxeko langileak, etab. Eta ezin ahaztu horietako askok emakume aurpegia dutela.

Bestalde, ezin dugu aipatu gabe utzi ikastetxeak eta eskola-jantokiak ixteak zer ekarriko duen. Arrazoi ekonomikoengatiko eskola-segregazioa, sistematikoki salatzen ari garena, nabarmenagoa egin da, eta Hezkuntza Sailak hartutako neurriek ez dute kontuan hartu gure ikasleen eta haien familien errealitatea; izan ere, horiei ez zaie bermatuko eguneroko kalitatezko janaria, eta arrakala teknologikoak klase birtual horietatik kanpo utziko ditu, irakasleak ez badira berriro ere inplikatzen eta konpontzen saiatzen.

Gure sektorea, hezkuntza, ez da bereziki prekarizatua den eremua, baina bai nabarmenki feminizatua. Hori horrela, emakumeak dira jardunaldi murriztuetan eta lan prekarizatuenetan daudenak bereziki. Egoera horrek guztiak, besteak beste, jardunaldi murriztu askoren etetea sortu du, baita ordezkapenak ez betetzea ere. Beraz, gurean ere gutxi zuten horiek galduko dute dena. Horregatik guk ere dei egiten diogu Gobernuari, Euskal Herriko Mugimendu Feministak egin duen bezalaxe, horien guztien lana eta bizitza babestu dezan, eta aurre egiteko neurriak gurekin elkarlanean har ditzan.

**Gauzak desberdin egiteko unea iritsi da!**

# Gure osasuna arriskuan jartzeaz, aski da!

2020ko otsailaren 6an, Zaldibarren, zabortegia eraitsi egin zen biltzen zuen eta eutsi ezin zuen hondakin kopuruagatik. Zabor tona kopuru jasangaitza horren azpian, Verter Recycling 2002 S.L. enpresako bi langile lurperatuta geratu ziren. Hilabetez baino gehiagoko lanen ostean, oraindik ere ezin izan dira gorpuak berreskuratu, horrek familiegan eta gainerako ezagunengan eragiten duen guztiarekin.

Ezin dugu ahaztu zabortegi horretako lanak, soilik etekin ekonomiko bilatzen duten enpresa pribatuekin egiten direla. Zabortegien kudeaketa horrek publikoa izan beharko luke, eta maiztasunez eta modu eraginkorrean kontrolatua.

Hondakinak kentzeko lanetan irregularitasun ugari gertatu direla salatu behar dugu. Agintariak ez dira gardenak izan; izan ere, pilatutako materialaren artean amiantoa eta oso kutsagarriak diren beste material industrial batzuk daude, eta ez zuten horren berririk eman hasieratik. Ematen ziren lan baldintzek ere ez zituzten betetzen hondakin industrialekin, lursaila mugitzen aritu direnean, beharrezkoak diren babes neurriak.

Ezin dugu ahaztu zabortegi horretako lanak, soilik etekin ekonomikoa bilatzen duten enpresa pribatuekin egiten direla. Zabortegien kudeaketa horrek publikoa izan beharko luke, eta maiztasunez eta modu eraginkorrean kontrolatua.

Gaiaren inguruko gardentasun eta informazio falta salatu du **STEILAS**ek, baita inguruko eskola eremuan sortu dituen ziurgabetasuna eta ezinegona ere. Hezkuntza sailak ez du inolako protokolorik helarazi, eta jarraitu beharreko jarraibideak eskasak izan dira. Harritzen gaitu haurtzaroa bezain zaurgarria den kolektibo bat babesteko beharraren aurrean duen utzikeriak.

Gertatutakoa ez da istripua, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak aurrera daramaten hondakinen kudeaketa ereduaren ondorioa baizik.

Zabortegi hori Verter Recycling 2002 enpresak kudeatu arren, EJk du jarduera kontrolatzeko eta araudia betearazteko ardura. EAEko zabortegirik handiena izanik, irregularitasun ugari ditu.

**STEILAS**etik exijitzen dugu:

**Lehentasuna** desagertutako langileak aurkitzeari ematea.

**Herritarrei** arriskuez behar bezala ohartaraztea.

**Eragindako** herritarren segurtasun- eta osasun-bermeak.

**Informazioa** argia, egiazkoa eta gardena izatea.

**Zabortegiak**, diren zerbitzu publiko gisa, negozio pribatu izateari utzi eta kudeaketa eta kontrol publikokoak izatera pasa daitezela.

Luizia gertatu zenetik, mobilizazioek ez dute etenik izan, betiere gertatutakoa argitu eta langileak erdigunean koka daitezen eskatuz. Bi langileak bilatzea ez da lehentasuna izaten ari Eusko Jaurlaritzarentzat, horregatik jarraituko dugu gogor eutsiz.

Era berean, ezin dugu ahaztu urte hasieratik daramatzagun hiru hilabeteetan 16 langile hildako baino gehiago daudela jada beren lanpostuetan + Zaldibarreko 2 langileak. Onartezina!

## Lan-baldintzak hobetu!

Lanetik bizirik eta osasunez itzultzeko eskubidea bermatzeko eskatzen dugu!

## CAF jaitsi zaitez Israelen apartheiden tranbiatik

Otsailaren 22an, Oridizian, 70 euskal erakundek baino gehiagok eskatu diogu CAFi "apartheid-aren trenetik jaisteko" eta Jerusalemgo tranbia Palestinako lurralde okupatuetatik zabaltzeko lanak bertan behera uzteko. Gainera NBEren "zerrenda beltz" batean sartutako Shapir enpresarekin egindako partzuergo bati esker lortuko dute kontratua.

## Inor ez etxerik gabe!

Joan den otsailaren 17an, Pobrezia Energetikoaren Aurkako Europako Eguna zela eta, manta eta kandelekin irten ginen kalera Gasteizko Inor Ez Etxerik Gabe ekimenarekin, baliabide ekonomiko urriak dituzten pertsonak berogailurik eta argirik gabe uzten dituen oligopolio energetikoaren aurka protesta egiteko.

## Hendaia-Irun Blokeoa mugetan. Ukatutako eskubideak

Otsailaren 22an, **STEILAS** Hendaiako eta Irungo mugetan egon zen, migratzaileen eskubideak errespetatuko dituen Euskal Herri bat aldarrikatzeko.

## Bolintxuren alde eta Supersurraren luzapenaren aurka!

"Proiektua gelditzea posible da oraindik" lelopean, mila lagun ibili ginen Bizkaiko hiriburuko kaleetan Supersur handitzeko proiektuari amaiera emateko eskatzen.

## Zaldibarko zabortegia

Gertatutakoa ez dela istripu bat izan, baizik eta Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak hondakinak kudeatzeko darabilten ereduaren ondorio latza dela salatu genuen.

Egoera horren gako nagusia zabortegien kudeaketa pribatuan datza; ondorioz, onura ekonomiko handiena lortzeko asmoz, zabortegien beharrezko segurtasun-bermeak ezabatzen dira.

# Mugak Zabalduz Karabana Balkanetara
# Caravana Abriendo Fronteras a los Balcanes

Abian da hurrengo Mugak Zabalduz Karabanaren antolaketa. Estatu osotik etorritako 16 erakunde Artean (Bizkaia) bildu ondoren, bosgarren edizioa uztailaren 17tik 26ra bitartean egingo dela eta Balkanak izango dituela jomuga erabaki zen. 2015ean Siriako gerra hasi zenetik Balkanetako ibilbidea izan da pertsonek asilo bila gehien erabili duten bideetako bat, are gehiago Hungariako eta Austriako gobernuek mugak itxi eta EBk Turkiarekin akordioa sinatu zuenetik. Aurreko edizioetan Grezian, Melillan, Italian eta Ceutan egin bezala, Karabana Balkanetan lan egiten duten erakunde lagunei babesa ematera joango da, Giza Eskubideen urraketa jasanezinak salatzera. Frantziako, Italiako eta Alemaniako kolektiboen babesa ere izango du protestak, beste urrats bat izango da Europar Batasunaren migrazio-neurri ankerrei aurre egingo dien europar sare indartsu bat sortzeko.

**STEILAS**, aurreko karabanetan egin bezala, ekintza-salatzaile berri honen parte aktiboa izango da, eta horregatik **steilas**kide gisa, parte hartzera animatzen zaitugu. Erreserbatu datak, laster izena ematea ahal izango baituzu.

Ya está en marcha la organización de la próxima Caravana Abriendo Fronteras. Esta quinta edición se celebrará del 17 al 26 de julio y tendrá como objetivo visibilizar las graves violaciones de derechos que sufren las personas migrantes en Los Balcanes. Será un paso más en la creación de una potente red europea que haga frente a las inhumanas políticas migratorias de la UE.
**STEILAS** te anima a participar.

# Eilastasuna proiektu berriak abian!

Urtebeteko barne prozesuaren eta eraberritzearen ondoren, Eilastasuna fondorako proiektu berriak proposatzeko epea ireki genuen.

Fondoaren partaide direnen aldetik jaso dugun emaria ederra izan da: kanpaina berriak interesa sortu du, ekarpenak jaso ditugu, eta garrantzitsuena, proiektu berriak proposatu dituzte.

Jakinarazi genizuen bezala, hezkuntzaren bitartez, munduan zehar botereak ekonomikoki baztertuta dituen komunitateetan joan eta etorriko elkarlaguntza sustatzea xede duten 7 proiektu kudeatzera pasatuko gara. Urtero baloratuko dira eta gehienez ere 8 urtez luzatuko da elkarlana (herrialdean laguntza jasoko dute, eta hemengo ikastetxeetan ikasleei eragingo dieten ekimenak aurrera eramango dira). Denbora tarte horretan proiektu biziak izatea dugu asmo, eta bi parteen arteko elkarlana ezinbestekoa izango da horretarako.

## Hezkuntza elkartasun proiektu berriak:




Funts hau sortu zenetik bidelagun zaituztegun funtsaren kide, sindikatukide, proiektu bultzatzaile eta herrialdeetan bertatik bertara aritu zareten lagun guztioi eskerrak bihotzez hau aurrera eramateko egindako lan guztiagatik. Momentu honetan denbora luzez etxeko izan ditugun proiektu eta lagunei lana aitortu eta egitasmo berriak irrikaz hartzera goaz.

Ilusioz beterik, bultzada berri honetan, Eilastasuna funtsaren partaide izatera animatzen zaituztegu irakaskuntzako langile guztiak hilabetean 5 euroren truke, horretarako jarri kontaktuan **STEILAS** sindikatuko egoitzaren batekin. Hala ere, guretzat hori baino esanguratsuagoa da elkartasuna eta internazionalismoa ikastetxeetara eramatea, baloreen balorea konpetentzietan sartzea.

Hurrengo asteetan helaraziko dizkizuegu proiektu bakoitzak dagokion herrialdean aurrera eramango dituen proposamenak, Euskal Herriko zein ikastetxetan eragingo duten, baita asmo eta ekarpen didaktikoen berri eman ere.

Hitz eta Lapitz

steilas

www.steilas.eus


### Araba

Eulogio Serdán 5
01012 **Gasteiz**
945 141 104 945 144 302
araba@steilas.eus

UPV/EHU Arabako Campusa
Ikasgelategia, 204. Bulegoa
01006 **Gasteiz**
945 013 397 (3397)
steilas-araba@ehu.es

### Bizkaia

Jose Maria Eskuza 1, 1 esk.
48013 **Bilbo**
944 100 298 944 101 360
bizkaia@steilas.eus

UPV/EHU Bizkaiko Campusa
Liburutegiko eraikina 1. solairua
48940 **Leioa** (Bizkaia)
946 012 434 (2434)
946 012 435 (2435)
steilas-bizkaia@ehu.eus

### Gipuzkoa

Basotxiki 30-34 atz.
20015 **Donostia**
943 466 000 943 453 627
gipuzkoa@steilas.eus

UPV/EHU Gipuzkoako Campusa
Ignacio Mª Barriola eraikina
Elhuyar Plaza 1
20018 **Donostia**
943 018 436 (8281)
943 018 140
steilas-gipuzkoa@ehu.eus

### Nafarroa

Joaquin Beunza, 4-6 behea
31014 **Iruñea**
948 212 355 948 229 790
nafarroa@steilas.eus